1/2025 EBAZPENA, apirilaren 1ekoa.

RESOLUCIÓN 1/2025, de 1 de abril.

BATZORDEBURUA: María Eugenia Maté Mendieta

PRESIDENTA: María Eugenia Maté Mendieta

KIDEA: Nerea García Rodríguez

VOCAL: Nerea García Rodríguez

IDAZKARIA: Unai Aberasturi Cantera

SECRETARIO: Unai Aberasturi Cantera

Bizkaiko Foru Aldundiko Gardentasunaren arloko Erreklamazioen Batzordeak, goian aipatutako kideek osotuta dagoenak, **EBAZPEN** hau jaulki du [redacted] aurkeztutako erreklamazioari dagokionez. Interesdunak erreklamazio hori Ogasun eta Finantza Saileko Katastroaren eta Zerbitzuen zuzendari nagusiaren maiatzaren 10eko 451/2024 zenbakiko eskaeraren ebazpenaren aurka aurkeztu zuen. Txostengilea María Eugenia Maté Mendieta izan da, Batzordearen iritzia ematen duena.

La Comisión de Reclamaciones en materia de Transparencia de la Diputación Foral de Bizkaia, compuesta por los miembros anteriormente expresados, ha dictado la siguiente **RESOLUCIÓN** ante la reclamación formulada por [redacted], contra la resolución de su solicitud de acceso a información pública de la directora general de Catastro y Servicios del departamento de Hacienda y Finanzas nº 451/2024, de 10 de mayo. Actúa como ponente María Eugenia Maté Mendieta, quien expresa el parecer de la Comisión.

## AURREKARIAK

## ANTECEDENTES DE HECHO

LEHENA. 2024ko apirilaren 30ean [redacted] jaunak informazio publikoa eskuratzeko eskaera hau aurkeztu zuen:

PRIMERO. En fecha 30 de abril de 2024 Don [redacted] presentó la siguiente solicitud de acceso a información pública:

*"TAL COMO ME INDICAN DESDE LA DIPUTADA GENERAL DE HACIENDA EN EMAIL DEL DIA 30/04/2024 SOLICITO POR ESTA VIA A LA DIPUTADA GENERAL DE HACIENDA ITXASO BERROJALBIZ ZABALA TODA LA INFORMACION DETALLADA DE CUALES SON LOS MOTIVOS POR LOS QUE SE PERMITE AL AYUNTAMIENTO DE ERANDIO, NO CUMPLIR EN SU TOTALIDAD LA Norma Foral 9/2025, de 16 de diciembre, de Haciendas Locales, las Entidades Locales EN LOS*

*"TAL COMO ME INDICAN DESDE LA DIPUTADA GENERAL DE HACIENDA EN EMAIL DEL DIA 30/04/2024 SOLICITO POR ESTA VIA A LA DIPUTADA GENERAL DE HACIENDA ITXASO BERROJALBIZ ZABALA TODA LA INFORMACION DETALLADA DE CUALES SON LOS MOTIVOS POR LOS QUE SE PERMITE AL AYUNTAMIENTO DE ERANDIO, NO CUMPLIR EN SU TOTALIDAD LA Norma Foral 9/2005, de 16 de diciembre, de Haciendas Locales, las Entidades Locales EN LOS*

[redacted]

*ARTÍCULOS 25.2 Y 27.3. ADEMÁS SOLICITO CITA CON LA DIPUTADA GENERAL DE HACIENDA ITXASO BERROJALBIZ ZABALA PARA QUE TAMBIEN SE ME FACILITE TODA LA INFORMACION SOBRE LA LEY, NORMA, DECRETO O LO QUE CORRESPONDA DONDE SE INDIQUE SE PERMITE TOMAR COMO BASE IMPONIBLE PARA LA TASA DE ALCANTARILLADO EL VALOR CATASTRAL YA QUE DE ESTA FORMA, CUANDO SE REVISAN LOS VALORES CATASTRALES Y SE ACTUALIZAN Y SE SUBEN, DIRECTAMENTE AFECTA A LA TASA DE ALCANTARILLADO QUE SE SUBE CAMUFLADAMENTE Y SOMOS LOS VECINOS DE ERANDIO LOS VIZCAINOS QUE NOS TRATAN DIFERENTEMENTE SOPORTANDO LA TASA DE ALCANTARILLADO MAS ALTA DE VIZCAYA. QUEDO A LA ESPERA DE RESPUESTAS. GRACIAS".*

<u>BIGARRENA</u>. Ogasun eta Finantza Saileko Katastroaren eta Zerbitzuen zuzendari nagusiaren maiatzaren 10eko 451/2024 Ebazpenaren bidez eskabidea ez onartzea erabaki zen. Erabaki hori Bizkaiko Gardentasunari buruzko 1/2016 Foru Arauaren 22. artikuluaren c) eta d) letretan oinarrituta hartu zen, Foru Ogasunak eskura ez duen informazioa izateagatik aurretiaz "ad hoc" ekoizteko eta egiteko prozesu baten ekintza beharko lukeelako, eta ez duelako horretarako eskumenik, udal-tasen zerga-oinarriak ordenantza fiskal bidez finkatzearen eskumen hori udalei dagokielako 9/2005 Foru Arauaren 15. artikuluarekin bat.

Ebazpen hori 2024ko maiatzaren 10ean jakinarazi zen elektronikoki.

<u>HIRUGARRENA</u>. Aurreko ebazpenaren aurka [redacted] jaunak gardentasunaren arloko erreklamazioa aurkeztu zuen 2025eko otsailaren 28an. Idazkia batzorde honetan jaso zen eta 1/25 zenbakia esleitu zitzaion.

*ARTÍCULOS 25.2 Y 27.3. ADEMÁS SOLICITO CITA CON LA DIPUTADA GENERAL DE HACIENDA ITXASO BERROJALBIZ ZABALA PARA QUE TAMBIEN SE ME FACILITE TODA LA INFORMACION SOBRE LA LEY, NORMA, DECRETO O LO QUE CORRESPONDA DONDE SE INDIQUE SE PERMITE TOMAR COMO BASE IMPONIBLE PARA LA TASA DE ALCANTARILLADO EL VALOR CATASTRAL YA QUE DE ESTA FORMA, CUANDO SE REVISAN LOS VALORES CATASTRALES Y SE ACTUALIZAN Y SE SUBEN, DIRECTAMENTE AFECTA A LA TASA DE ALCANTARILLADO QUE SE SUBE CAMUFLADAMENTE Y SOMOS LOS VECINOS DE ERANDIO LOS VIZCAINOS QUE NOS TRATAN DIFERENTEMENTE SOPORTANDO LA TASA DE ALCANTARILLADO MAS ALTA DE VIZCAYA. QUEDO A LA ESPERA DE RESPUESTAS. GRACIAS".*

<u>SEGUNDO</u>. Por Resolución nº 451/2024, de 10 de mayo, de la directora general de Catastro y Servicios del departamento de Hacienda y Finanzas, se inadmitió la solicitud basándose en los apartados c) y d) del artículo 22 de la Norma Foral 1/2016, de Transparencia de Bizkaia, al tratarse de una información con la que no cuenta la Hacienda Foral que requeriría una acción previa de un proceso de producción y elaboración "ad hoc" para el que carece de competencia, al corresponder a los ayuntamientos, conforme dispone el artículo 15 de la Norma Foral 9/2005, fijar mediante ordenanza fiscal las bases imponibles de las tasas municipales.

Dicha resolución fue notificada electrónicamente el 10 de mayo de 2024.

<u>TERCERO</u>. – Contra dicha resolución Don [redacted] presentó el 28 de febrero de 2025, reclamación en materia de transparencia. El escrito se recibió en esta Comisión, que le asignó el número 1/25.

[redacted]

[redacted]

[redacted]

<u>LAUGARRENA</u>. Aurkeztutako erreklamazioaren arrazoiketan, errekurtsogileak bere garaian informazio publikoa eskuratzeko aurkeztutako eskaeraren edukia errepikatzen du; honako hau dio hitzez hitz:

<u>CUARTO</u>. En la motivación de la reclamación el recurrente reproduce el contenido de la solicitud de acceso a la información pública presentada en su día, con el siguiente literal:

*"SOLICITO INFORMACIÓN DETALLADA DE CUALES SON LOS MOTIVOS O LAS NORMAS, LEYES, POR LO QUE SE PERMITE AL AYUNTAMIENTO DE ERANDIO, NO CUMPLIR EN SU TOTALIDAD LA NORMA FORAL 9/2005, DE 16 DE DICIEMBRE, DE HACIENDAS LOCALES EN LOS ARTÍCULOS 25.2 Y 27.3 Y SOBRE LA LEY, NORMA, DECRETO O LO QUE CORRESPONDA DONDE SE INDIQUE SE PERMITE TOMAR COMO BASE IMPONIBLE PARA LA TASA DE ALCANTARILLADO EL VALOR CATASTRAL YA QUE DE ESTA FORMA, CUANDO SE REVISAN LOS VALORES CATASTRALES O SE ACTUALIZAN, AUTOMATICAMENTE SE SUBE LA TASA DE ALCANTARILLADO EN EL AYUNTAMIENTO DE ERANDIO, CAMUFLADAMENTE, Y SIN MODIFICAR LA NORMA DE LA TASA. COMETE ESA. GRACIAS".*

*"SOLICITO INFORMACIÓN DETALLADA DE CUALES SON LOS MOTIVOS O LAS NORMAS, LEYES, POR LO QUE SE PERMITE AL AYUNTAMIENTO DE ERANDIO, NO CUMPLIR EN SU TOTALIDAD LA NORMA FORAL 9/2005, DE 16 DE DICIEMBRE, DE HACIENDAS LOCALES EN LOS ARTÍCULOS 25.2 Y 27.3 Y SOBRE LA LEY, NORMA, DECRETO O LO QUE CORRESPONDA DONDE SE INDIQUE SE PERMITE TOMAR COMO BASE IMPONIBLE PARA LA TASA DE ALCANTARILLADO EL VALOR CATASTRAL YA QUE DE ESTA FORMA, CUANDO SE REVISAN LOS VALORES CATASTRALES O SE ACTUALIZAN, AUTOMATICAMENTE SE SUBE LA TASA DE ALCANTARILLADO EN EL AYUNTAMIENTO DE ERANDIO, CAMUFLADAMENTE, Y SIN MODIFICAR LA NORMA DE LA TASA. COMETE ESA. GRACIAS".*

## <u>ZUZENBIDEKO OINARRIAK</u>

## <u>FUNDAMENTOS DE DERECHO</u>

<u>LEHENA</u>. Bizkaiko Gardentasunari buruzko otsailaren 17ko 1/2016 Foru Arauaren 27. artikuluaren bidez sortu zen Gardentasunaren arloko Erreklamazioen Batzordea.

<u>PRIMERO</u>. La Comisión de Reclamaciones en materia de Transparencia se crea por el artículo 27 de la Norma Foral 1/2016, de 17 de febrero, de Transparencia de Bizkaia.

Foru Arau horren 29.1.1. artikuluaren arabera, 2. artikuluarekin lotuta, Erreklamazioen Batzordea izango da Bizkaiko Foru Aldundiko, foru-organismo autonomoetako, foruko enpresa-erakunde publikoetako, foruko merkataritza-sozietateetako, foru-fundazioetako, foru-partzuergoetako eta zuzenbide publikoko beste foru-erakunde batzuetako (lehen aipatutakoez gain) informazio publikoa eskuratzeko eskubidea berariaz edo ustez ezesten denean aurkezten diren

De conformidad con el artículo 29.1.1, en relación con el artículo 2, ambos de esta Norma Foral, la Comisión de Reclamaciones será la competente para resolver las reclamaciones frente a la denegación expresa o presunta del derecho de acceso a la información pública de la Diputación Foral de Bizkaia y los organismos autónomos forales, las entidades públicas empresariales forales, las sociedades mercantiles forales, las fundaciones forales y los consorcios forales y otros entes forales de derecho público

erreklamazioak ebazteko eskumenduna.

distintos de los mencionados anteriormente.

Bestalde, Bizkaiko Foru Aldundiko Gardentasunaren Inguruko Erreklamazioen Batzordearen antolakuntza- eta funtzionamendu-araudiak, Bizkaiko Foru Aldundiaren uztailaren 26ko 128/2016 Foru Dekretuaren bidez onartuak, 18. artikuluan ezartzen du Batzordearen Osoko Bilkuraren eskumena dela, besteak beste, honako hau: *"a) Informazio publikoa eskuratzeko eskubidea baliatzea tazituki zein espresuki ukatzea dela-eta aurkezten diren erreklamazioak ebaztea, 1/2016 Foru Arauan ezarritakoaren arabera."*

Por su parte, el Reglamento de organización y funcionamiento de la Comisión de Reclamaciones en materia de Transparencia de la Diputación Foral de Bizkaia, aprobado por Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 128/2016, de 26 de julio, establece en su artículo 18 que, entre otras, es competencia del Pleno de la Comisión: *"a) Resolver las reclamaciones contra la denegación expresa o tácita del ejercicio del derecho de acceso a la información pública en los términos establecidos en la Norma Foral 1/2016."*

<u>BIGARRENA</u>. Instantzia honetan, erreklamaziogileak bere garaian Bizkaiko Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Sailari aurkeztutako informazio-eskaera errepikatu besterik ez du egiten, erreklamazioaren oinarri izan zitekeen arau-agindurik aipatu gabe.

<u>SEGUNDO</u>. En la presente instancia el reclamante se limita a reiterar la solicitud de información formulada en su día ante el Departamento de Hacienda y Finanzas de la Diputación Foral de Bizkaia, sin referencia a precepto normativo alguno que pudiera sustentar la reclamación.

<u>HIRUGARRENA</u>. Errekurritutako ebazpenaren hirugarren atalean adierazten zen erreklamazioa aurkez zitekeela batzorde honetan, eta ondore horretarako hilabeteko (1) epea zegoela, otsailaren 17ko 1/2016 Foru Arauaren 24.5 artikuluan ezarritakoarekin bat, edo, bestela, zuzenean administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez zitekeela Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salan, bi (2) hilabeteko epean, bi kasuetan jaso eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

<u>TERCERO</u>. En el apartado tercero de la resolución recurrida se señalaba que la misma era susceptible de reclamación ante esta comisión, teniendo a tal efecto el plazo de un (1) mes con arreglo a lo establecido en el artículo 24.5 de la Norma Foral 1/2016, de 17 de febrero, o bien directamente recurso contencioso-administrativo en el plazo de dos (2) meses ante la Sala de lo Contencioso-administrativo del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco, en ambos casos a partir del día siguiente a su recepción..

<u>LAUGARRENA</u>. Lehen adierazi den bezala, errekurritutako ebazpena elektronikoki jakinarazi zen 2024ko maiatzaren 10ean, eta, beraz, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 30.4 artikuluan xedatutakoari jarraikiz, batzorde honetan erreklamazioa aurkezteko hilabeteko epea 2024ko ekainaren 10ean amaitu zen.

<u>CUARTO</u>. Como antes se ha indicado, la resolución recurrida fue notificada electrónicamente el 10 de mayo de 2024, por lo que atendiendo a lo dispuesto en el artículo 30.4 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, el plazo de un mes para interponer reclamación ante esta comisión finalizó el 10 de junio de 2024.

Hala ere, erreklamazioa 2025eko otsailaren 28an aurkeztu zen, eta, beraz, 39/2015 Legearen 116.d) artikuluan ezarritakoarekin bat, ez zen onartu behar, errekurtsoa aurkezteko epea soberan gaindituta zegoelako.

Horregatik guztiagatik, Gardentasunaren arloko Erreklamazio Batzorde honek honako hau erabaki du:

EBAZPENA

<u>Lehena.</u> Ogasun eta Finantza Saileko Katastroaren eta Zerbitzuen zuzendari nagusiaren maiatzaren 10eko 451/2024 Ebazpenaren aurka [redacted] JAUNAK aurkeztutako erreklamazioa ez onartzea, epez kanpo aurkeztu zelako.

<u>Bigarrena.</u> Ebazpen hau errekurtsogileari eta Ogasun eta Finantza Saileko Katastroaren eta Zerbitzuen zuzendaritza nagusiari jakinaraztea. Halaber, Herri Administraziorako eta Erakunde Harremanetarako Saileko Gobernamendu Onaren, Herritarrenganako Laguntzaren eta Zerbitzu Digitalen Zuzendaritza Nagusiari jakinaraziko zaio.

<u>Hirugarrena.</u> Ebazpen honek, behin betikoa denak, administrazio-bidea agortzen du. Dena dela, beraren aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahal izango da EAEko Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Salan, jakinarazpena egiten denetik eta BI (2) HILABETEKO epearen barruan.

Hori guztia, Bizkaiko Foru Aldundiaren uztailaren 26ko 128/2016 Foru Dekretuaren (Bizkaiko Foru Aldundiaren gardentasunaren arloko Erreklamazioen Batzordearen eta Bizkaiko foru-sektore publikoko erakundeen Antolaketa eta Funtzionamenduari buruzko Araudia onartzen duena) 27. artikuluan eta

No obstante, la reclamación fue interpuesta el 28 de febrero de 2025 por lo que de conformidad con lo previsto en el artículo 116.d) de la citada Ley 39/2015, debe ser inadmitida al haber transcurrido, con creces, el plazo para su interposición.

Por todo lo cual, esta Comisión de Reclamaciones en materia de Transparencia, acuerda:

RESOLUCIÓN

<u>Primero.</u> Inadmitir por extemporánea la reclamación promovida por [redacted] contra la Resolución 451/2024, de 10 de mayo, de la directora general de Catastro y Servicios del departamento de Hacienda y Finanzas.

<u>Segundo.</u> Notificar esta resolución al recurrente y a la dirección general de Catastro y Servicios del Departamento de Hacienda y Finanzas. Asimismo, se comunicará a la dirección general de Buen Gobierno, Atención Ciudadana y Servicios Digitales del Departamento de Administración Pública y Relaciones Institucionales.

<u>Tercero.</u> La presente resolución, que es definitiva, agota la vía administrativa y contra la misma se podrá interponer recurso contencioso-administrativo ante la Sala de lo Contencioso Administrativo del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco, en el plazo de DOS MESES a contar del día siguiente al de su notificación.

Todo ello de conformidad con lo dispuesto en el artículo 27 del Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 128/2016, de 26 de julio, por el que se aprueba el Reglamento de Organización y Funcionamiento de la Comisión de Reclamaciones en materia de Transparencia de la Diputación Foral de

[redacted]

Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/98 Legearen 10. eta 46. artikuluetan ezarritako irizpideen arabera.

Bizkaia y de las entidades del sector público foral de Bizkaia, y en los artículos 10 y 46 de la Ley 29/98, de 13 de julio, Reguladora de la Jurisdicción Contencioso-Administrativa.

[redacted]

Sin./Fdo.: UNAI ABERASTURI CANTERA - 2025-04-01
IDAZKARIA
EL SECRETARIO